



ZIZURKILGO UDALA

**EZ OHIKO OSOKO BILKURARAKO**  
**DEIA**

Honen bidez, Ez Ohiko Osoko Bilkurarako deitzen dizut:

Eguna: **2014ko apirilaren 11, ostirala**

Ordua: **19:00**

Tokia: Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoa

**CONVOCATORIA A PLENO**  
**EXTRAORDINARIO**

Por la presente le convoco a la Sesión de Pleno Extraordinario a celebrar:

Día: **11 de Abril de 2.014, viernes**

Hora: **19:00**

Lugar: Salón de Plenos de la Casa Consistorial.

**EGUNEKO AZTERGAIK**

1.- "AIZTONDOKO PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO LAGUNAK" AURKEZTUTAKO MOZIOA.

2.- UDALBILTZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2014KO ABERRI EGUNA DELA ETA.

**ORDEN DEL DIA**

1.- MOCION PRESENTADA POR "AIZTONDOKO PRESO ETA IHESLARIEN ALDEKO LAGUNAK".

2.- MOCION PRESENTADA POR UDALBILTZA CON MOTIVO DEL ABERRI EGUNA DE 2.014

Zizurkil, 2014ko apirilaren 8an.

Alkatea.

Zizurkil, 8 de Abril de 2.014

El Alcalde.





ZIZURKILGO UDALA

**2014ko APIRILAREN 11n  
EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO  
BILKURAKO AKTA**

**ACTA DE LA SESION DE PLENO  
EXTRAORDINARIO CELEBRADA EL  
DIA 11 DE ABRIL DE 2.014**

**Partaideak/ Señores Asistentes:**

**ALKATEA / ALCALDE:**

José María Luengo Zapirain Jauna (Bildu)

**ZINEGOTZIAK/CONCEJALES:**

Alaitz Ormazabal Goenaga (Bildu)  
M<sup>a</sup> Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.)  
Leire Zubeldia De Esteban (Bildu)  
Eva Usandizaga Mujika (Bildu)  
Aratz Alkorta Irazusta (Bildu)  
Aitor Sarasua Arruti (Bildu)

**IDAZKARIA /SECRETARIO:**

José Ramón Eceizabarrena Garmendia

Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, bi mila eta hamalauko apirilaren hamaikako hemeretzi orduak direnean, Zizurkilgo Udaleko Udaltzatza bildu da, Alkate jaunaren lehendakaritzapean eta goian aipatzen diren zinegotzien partaidetzarekin. Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu) eta Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu) zinegotziak ez dira etorri.

Lehendakaritzaren aginduz bilkura hasi da eta Idazkariak jakinarazi du berau egin daitekeela legez ezarritako quoruma bertan dagoelako.

**1.- “AIZTONDOKO PRESO ETA  
IHESLARIEN ALDEKO LAGUNAK”  
AURKEZTUTAKO MOZIOA.**

Akta honen I. eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

Ondoren aurkeztutako idatzia onartzeko bozketa egin da. Hau da emaitza:

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, siendo las diecinueve horas del día once de Abril de dos mil catorce, se reúne la Corporación del Ayuntamiento de Zizurkil bajo la presidencia del Señor Alcalde y con la asistencia de los Señores Concejales que arriba se citan, no asistiendo los concejales Egoitz Sorozabal Iturain (E.A.J.-P.N.V.), Oscar Martínez Orive (P.S.E.-E.E./P.S.O.E.), Aritz Esnaola Arruti (Bildu) y Nerea Lizarraga Gabirondo (Bildu).

Abierta la Sesión de orden de la Presidencia, el Secretario informa que la misma puede celebrarse por concurrir a ella el quórum legalmente establecido.

**1.- MOCION PRESENTADA POR  
“AIZTONDOKO PRESO ETA  
IHESLARIEN ALDEKO LAGUNAK”.**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo I del presente Acta.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación del mismo, con el siguiente resultado.



## ZIZURKILGO UDALA

- Aldeko botoak: 7 (6 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

Beraz, Udalbatzarrak, aho batez, onartzen du aurkeztutako idatzia.

### **2.- UDALBILTZAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, 2014KO ABERRI EGUNA DELA ETA.**

Akta honen II. eranskinean jasota dago aurkeztutako Mozioa.

M<sup>a</sup> Angeles Lazkano Larrañaga zinegotziak (E.A.J.-P.N.V.) eskatu du Mozioa puntuz puntu bozkatzeara, eta ez bere osotasunean. Eskaera onartu egiten da.

Ondoren, bozketa egin da, eta honako emaitza hau ateratu da:

#### 1. puntua:

- Aldeko botoak: 7 (6 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

#### 2. puntua:

- Aldeko botoak: 7 (6 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

#### 3. puntua:

- Aldeko botoak: 7 (6 Bildurenak eta 1 E.A.J.-P.N.V.rena).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 0.

- Votos a favor: 7 (6 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

Por lo que el Pleno de la Corporación, por unanimidad, acuerda aprobar el escrito presentado.

### **2.- MOCION PRESENTADA POR UDALBILTZA CON MOTIVO DEL ABERRI EGUNA DE 2.014**

La Moción que se presenta es la que se refleja en el Anexo II del presente Acta.

La concejal M<sup>a</sup> Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.) solicita que la Moción sea votada punto por punto en vez de en su totalidad. La solicitud es aceptada.

Seguidamente se realiza la votación para la aprobación del mismo, con el siguiente resultado.

#### Al Punto 1:

- Votos a favor: 7 (6 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

#### Al Punto 2:

- Votos a favor: 7 (6 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.

#### Al Punto 3:

- Votos a favor: 7 (6 de Bildu y 1 de E.A.J.-P.N.V.).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 0.



## ZIZURKILGO UDALA

4. puntua:

- Aldeko botoak: 6 (6 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).

5. puntua:

- Aldeko botoak: 6 (6 Bildurenak).
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 1 (1 E.A.J.-P.N.V.rena).

Hortaz, udalbatzak adierazpena onartzea adostu du, botoen gehiengoarekin.

M<sup>a</sup> Angeles Lazkano Larrañaga zinegotziak (E.A.J.-P.N.V.) adierazi du bere abstentzioa dela 4. eta 5. puntuetan aipatzen dena Aberri Egunaren ospakizunarekin zer ikusia ez duelako.

Beste aztergairik gabe, eta hemeretzi orduak eta hogeit hamar minutuak direnean, Batzarra amaitu da eta honetaz guztiaz nik, Idazkariak, fede eta kontu ematen dut.

O.I.  
ALKATEA.

Vº Bº  
EL ALCALDE.



Al Punto 4:

- Votos a favor: 6 (6 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).

Al Punto 5:

- Votos a favor: 6 (6 de Bildu).
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 1 (1 de E.A.J.-P.N.V.).

Por lo que el Pleno de la Corporación, por mayoría de votos, acuerda aprobar el manifiesto presentado.


La concejal M<sup>a</sup> Angeles Lazkano Larrañaga (E.A.J.-P.N.V.) expone que su abstención en los puntos 4º y 5º se debe a que estos puntos no tienen relación alguna con la celebración del Aberri Eguna.

Y sin más asuntos que tratar, y siendo las diecinueve horas y veinte minutos, se levanta la Sesión, de la cual, yo, el Secretario, doy fe y certifico.



## I ERANSKINA – ANEXO I

ZIZURKILGO UDALA



**Apirilaren 26an denok Laurralera!!!!!!  
Aiztondora eguna 2014**

Dispertsio politikak aurtengoan 25 urte beteko ditu. Urte hauetan, preso arruntak direla esaten jardun badute ere sarri, Espainiar zein Frantziar Estatuak neurri bereziak ezarri dizkiete euskal presoeri. Orain bidegabea dela esaten duten askok duela 25 urte hura legitimatzeko eta laguntzeko ez zuten arazorik izan. Orain konturatu dira alferrikakoa izateaz gainera eragin duen sufrimendua alferrikakoa dela. Seguruenik senide eta lagun askorentzat berandu izango da baina ondo dator. Baina esan, gaur gaurkoz errepideak euskaldunetz betetzen direla astebururo. Eta tragedia hori ez da komunikabideetan islatzen.



Euskal presoek aurkako neurri murriztaileak ez dira legalitate irizpideen arabera hartu, unean uneko interes politikoen arabera baizik.

Preso zein iheslari politikoen eskubideak ezin dira interes politikoen arabera baldintzatuak egon. Are gutxiago, haiek euren ordezkariak legitimaren bitartez azken garaioan urrats erabakigarriak ematen ari diren unean. Euskal presoek herri honen historian sarri egin duten moduan,

haien ekarpena egin dute. Urratsak eman dituzte Euskal Herriak bizi duen garai historiko honetan, haiek ere bere ekarpena egiteko. Eta ekarpenaren dimentsioa oso errelabantea da.

Egun herri honek bizi duen abagune sozial eta politikoan milaka kilometrotara euskal herritarrak izatea, ez hanka eta ez buru ez duen errealitatea da, mina eta gorrotoa eragitea besterik ez duena gainera. Gertuena dagoen Aiztondoko euskal preso Ocaña -Toledon dago. Urrutikoena, Puerto Santa Marian. Milaka kilometro, istripu arrisku amaigabe. Astero aiztondoko hamarnaka senide errepidean jartzen dira haien senide eta lagunak ikusteko, 40 minutu miserable bada ere. Aiztondok arriskuen berri ere badu, egoera latzak pasa ditugu dispertsioaren eraginez, Mikel Egibarren senideen istripuak gure buru eta bihotzak astindu zituen. Zenbat gehiago gertatu behar dute? zenbat preso gehiago hil behar dute espetxean, Migel Zalakainen modura bihotzekoak emanda, asistentzia mediku egokirik ez dutelako espetxean?, zenbat jazarpen gehiago jasan behar dute presoek emazte, neska lagun, amek haien senideak ikusteko? zenbat diru gehiago xahutu behar dugu, asteburu bat bera ere bisitarik gabe uztea erabakia dugulako? zenbat?

Espainiar eta Frantziar estatuak temati jarraitzen dute. Ez dute inolako aurrerapausorik eman nahi. Baina euskal herritarrak gure lan eta ekimenez bi estatuak behartu behar ditugu. Ez dago beste biderik, beste kasu askotan bezala soilik herri borondate masiboak, Urtarrilaren 11koaren modura, behartuko dituzte antidemokratikoak diren bi estatuak, haien posturak aldatzera, herri gogoak soilik ahalbidetuko du, euskal presoak euskal herrian eta etxean izatea, bizirik eta onik.



## ZIZURKILGO UDALA

Indarrak bildu, herritarren bilgune zabal eta anitzak eratu nahi ditugu, Aiztondoko herritarrek aukera daukate Apirilaren 26ean, Larraulen bide horretan, beste behin euskal preso eta iheslarien defentsan urratsak emateko. Eta emango ditugu. Ziur.

**Idatzi honen bidez, Apirilaren 26ean Larraulen burutuko dugun Aiztondora Elkartasun egunari zure atxikimendua ematea eskatzen dugu, baita bertan antolatuko diren ekimenetan parte hartzea modu aktiboan.**

**Modu berean, zure Udalerriko herritarrei aipatu egunean parte hartzeko eskaria modu ofizialean egitea ere, bando bidez.**

Eskari hau behar den tokian jasota geratu dadin agurtzen gara.

Aiztondon 2014 apirilaren 1ean



ZIZURKILGO UDALA

## II ERANSKINA – ANEXO II



Udalbiltza

ZIZURKILGO UDALA

2014 APL. - 8

SARREREN ERREGISTROA

Zenbakia ..... 270 .....

### 2014ko Aberri Egunerako Udalbiltzaren ez ohiko osoko bilkuretarako mozio proposamena

#### “Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu”

Aturritik Ebrora eta Enkarterrietatik Auñamendira, Pirinioetako bi aldeetan 685 udalerrietan bizi garen 3 milioi euskal herritarren gehiengoak, gure hizkuntza, kultura, edo jatorria edozein izanik ere, Euskal Herritar gisa bizi nahi dugu. Gure eskubide zibil eta politiko barne, Nazioarteko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaletik eratoritzen diren eskubide guztien jabe bizi nahi dugu Euskal Herri osoan.

Baina hori, zoritxarrez ez da gaur guk pairatzen dugun errealitate politiko administratiboa. Euskal Herria estaturik gabeko herri bat da, eta gu, euskal herritarrok gure borondatearen gainera, ofizialki frantziarrak edo espainiarrak izatera beharturik gaude. Gure udalerriak 2 estatuetan sakabanaturik daude. Alde batetik, Ipar Euskal Herriko 159 udal Frantziako Errepublikako Akitania izeneko erregioaren Pirinio Atlantikoetako departamentuaren barruan daude, Biarnoarekin batera diluiturik, inolako aitortza politiko administratiborik gabe. Bestetik, Espainiako Erresuman administratiboki kokatzen dira beste 526 udal. Hurrenez hurren: 272 Nafarroako Foru Komunitate izeneko Autonomia elkargoan, 251 Euskadiko Autonomia Elkargoan, 2 Gaztela-Leongo Autonomia elkargoko Burgos Probintzian eta azken bat Kantabriako elkargo autonomoan.

Errealitate hori ez da Euskal Herritarrek libre eta demokratikoki erabaki egin duguna, gerra eta konkistaz beteriko historiaren ondorioa baizik. Errealitate hori era demokratiko batean aldatzeko, Euskal Herriko udalek lan aitzindaria eta garrantzitsua egin dute historikoki. XX. mendean adibidez, horren lekukoa da 1931. urteko Lizarrako estatutua, 1976. urteko Bergarako alkateen mugimendua edo Ipar Euskal Herriko 1998. urtean Euskal Departamenduaren alde egindako aldarrikapen eta mobilizazioak.

XXI. mendea hastear zegoelarik Euskal Herriko udal eta Udal hautetsien Biltzarra, Udalbiltza, beste mugarri esanguratsua izan zen.

2014. urte honetan abagune berezia ari gara bizitzen. Begi bistan daude kontrako eta aldeko faktoreak. Alde batetik, nabaria da Espainia eta Frantziaren ezezko iraunkorra... Baina han daude ere Europako estatu berrien sorrera, Katalunia eta Eskoziaren autodeterminaziorako erreferendumak edo “gure esku dago” bezala,



## ZIZURKILGO UDALA

Euskal Herrian sortzen ari diren herri ekimen arrakastatsu berriak edo itzaropentsuak izatera bultzatzen gaituen Independentziari buruzko Etxarriko herri kontsultak.

Horregatik, Euskal Herriaren egunaren bezperetan, Euskal Herritarren egunera hurbiltzen ari garenean, aurreko guztia aintzat hartuz, ..... herriko udalak Aberri Egunerako ez ohiko osoko bilkura honetan, hurrengo adierazi nahi du:

- 1.- Euskal Herritarrak garelara adierazteko garaia heldu dela eta ozenki esan nahi dugulako, Euskal Herritartasunaren aldeko herri dinamika sortzeko eta sustatzeko deia luzatzea erabaki dugu.
- 2.- Kaleetan zein eraikuntza publiko eta partikularretan Euskal ikurrak jartzeko gonbidapena luzatzen dugu honen bidez. Zer ez garen baino, garena eta sentitzen duguna ikurren bidez publikoki adierazteko gonbidapena luzatu nahi diogu herritar orori.
- 3.- Zer garen gaur, iragana ezagutu gabe oso zaila delakoan, aitzineko zein garaikidea den oroimen historikoa berreskuratzeko konpromisoa hartzen dugu. Hala ere, iragana baino gehiago, oraina eta -batez ere- etorkizunari erreparatu nahi dugunez gero, kultur, hizkuntz eta identitate aldetik anitz eta aberatsa sortzen ari den Euskal Herri berri honi so egiten diogu. Horregatik, atxikimendu librea oinarriturik, Herritartasun Agiri Ofizialaren beharra aldarrikatu, eta ekimen bateratua, ofiziala eta eraginkorra sortzeko konpromisoa adierazi nahi dugu.
- 4.- Independentziari buruz Etxarriko herriak apirilaren 13an burutuko duen herri kontsultari erabateko babes adierazi nahi diogu. Erabakitze eskubidearen ariketa demokratiko praktikotzat jotzen dugu eta zentzu honetan bere zilegitasuna aitortu nahi dugu.
- 5.- Zentzu berean eta arrazoi berdinegatik, "Gure esku dago" herri ekimenak ekainaren 8rako antolatu duen Iruñea eta Durangoren arteko giza katean parte hartzeko deia, eta oro har, "Gure esku dago" herri dinamikari erabateko babes adierazi nahi diogu.

*Euskal Herrian 2014ko apirilaren -----*



ZIZURKILGO UDALA



Udalbiltza

## Proposición de Udalbiltza para la moción de los plenos extraordinarios del Aberri Eguna de 2014

“Euskal Herritarrak gara eta ozenki adierazi nahi dugu”  
(= “Somos ciudadanas y ciudadanos vascos y queremos expresarlo alto” )

Desde el Adur al Ebro y desde las Encartaciones hasta el Pic d' Annie, la mayoría de los 3 millones de vascas y vascos que habitamos en 685 municipios de ambos lados de los Pirineos, independientemente de la lengua, cultura u origen de cada cual, deseamos vivir como ciudadanos vascos. Queremos vivir dueños de todos los derechos derivados de la Declaración Universal de los Derechos Humanos, incluidos nuestros derechos civiles y políticos, en toda Euskal Herria.

Pero, desgraciadamente, no es ésa la realidad político-administrativa que vivimos. Euskal Herria es un país sin estado, y nosotros, más allá de nuestra voluntad, estamos obligados a ser oficialmente franceses o españoles. Por un lado, los 159 municipios de Ipar Euskal Herria se hallan situados en la República Francesa, en la región de Aquitania, dentro del departamento de Pirineos Atlánticos, diluido junto a Bearne y sin ningún reconocimiento político-administrativo. Por otro lado, otros 526 municipios se sitúan administrativamente en el Reino de España: 272 en la Comunidad Foral de Navarra, 251 en la Comunidad Autónoma Vasca, 2 en la Comunidad Autónoma de Castilla y León, en la provincia de Burgos, y 1 en la Comunidad Autónoma de Cantabria.

Esa realidad no ha sido el resultado de una decisión libre y democrática tomada por las y los ciudadanos vascos, sino la consecuencia de una historia llena de guerras y conquistas. Los municipios vascos históricamente han desarrollado una labor precursora e importante de cara a transformar esa realidad de una manera democrática. Así en el siglo XX tenemos ejemplos de esa labor municipal: en 1931 el estatuto de Lizarra, en 1976 el movimiento de alcaldes de Bergara o en 1998 las reivindicaciones y movilizaciones a favor de un departamento vasco en Ipar Euskal Herria.

Cuando el siglo XXI estaba a punto de comenzar, Udalbiltza, la asamblea de municipios y de electos municipales de Euskal Herria, supuso un hito importante.

Este año 2014 vivimos una coyuntura especial, en la que los factores son varios, unos favorables y otros desfavorables. Por un lado, es destacable la negación permanente de España y Francia... Pero al mismo tiempo, ahí están también la



## ZIZURKILGO UDALA

creación de nuevos estados en Europa, los referéndums de autodeterminación de Catalunya y Escocia, y en Euskal Herria la creación de nuevas iniciativas exitosas como “Gure esku dago” o la consulta popular sobre la independencia de Etxarri Aranatz que nos lleva a mantenernos esperanzados.

Por lo tanto, y en vísperas del día de Euskal Herria, del día de las y los ciudadanos vascos, y teniendo en cuenta todo lo expuesto anteriormente, el ayuntamiento de ....., en este pleno extraordinario del Aberri Eguna, queremos expresar lo que viene a continuación:

1.- Ha llegado el momento de expresar que somos ciudadanas y ciudadanos vascos y porque deseamos decirlo alto, hacemos un llamamiento para crear y promover una dinámica popular a favor de la ciudadanía vasca.

2.- Hacemos un llamamiento para colocar símbolos vascos en las calles y edificios, públicos y privados. Deseamos expresar lo que somos, en vez de lo que no somos, y para ello invitamos a todos los ciudadanos a hacerlo por medio de símbolos vascos.

3.- Es difícil saber lo que somos hoy en día, sin conciencia de nuestro pasado, por lo que tomamos el compromiso de recuperar la memoria histórica antigua y contemporánea. Sin embargo, queremos centrarnos en el presente y, sobre todo, en el futuro, más que en el pasado, por lo que miramos a esta nueva Euskal Herria que se está creando alrededor de la diversidad y la riqueza de culturas, lenguas e identidades. Por eso, manifestamos nuestro compromiso para, basándonos en la libre adhesión, reivindicar la necesidad de un documento que exprese nuestra ciudadanía, y crear una iniciativa unificada, oficial y eficaz.

4.- Expresamos nuestro total apoyo a la consulta popular sobre la independencia que se celebrará el 13 de abril en Etxarri Aranatz. Se trata de un ejercicio práctico y democrático del derecho a decidir, por lo que queremos declarar su legitimidad.

5.- En el mismo sentido y por las mismas razones, hacemos un llamamiento a participar en la cadena humana entre Iruñea y Durango organizada por la iniciativa popular “Gure esku dago” que se celebrará el 8 de junio. Expresamos además nuestro total apoyo a la dinámica popular “Gure esku dago” .

Euskal Herria, .....de abril de 2014